

PuLunPe

157. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



OLERKIA Hariak

Gurasoen hariak, halabeharraren hariak, norbere gorputzaren hariak, lagun minen hariak, behaztopatzeko modu luzeak, hariak. Lotzen zaituzten hariak, maitasun luzeak bezalako hariak. Titerearen modukoak, batzuetan atezuan, besteetan lasaieran, edo korapilatzen.

Eta horrela bizi, hariekin, hariak egokitzen, hariei kasu egiten, harien kontra tiraka, haien gatibu. Eman dezagun berrogei urtez horrela... eta bat batean ohartu ezetz, eguzkiaren edo ilargiaren errainuak bezalakoak direla, eta ez zaituztela lotzen, azkenean, ez duzula haririk.



Joseba Sarrionaindiaren testua eta Ernesto Biguriren argazkia



Rakel Arraztoa, Gelbentzuko banatzailea:

**“Aldizkarian jende adinduak
kontakten dituen
istorio horiek gustuko ditut”**



Urte bete darama Rakelek aldizkaria banatzen, “Lehen Pilarrek egiten zuen lan hori, baina orain gutxitan etortzen da, Alkotzen bizi baita, eta nik hartu nuen lan hori”.

“Pulunpe banatzeak ez du lan askorik, Gaskueko Albertok ekartzen dizkit eta alabarekin batera banatzen ditut paseotxo bat emanez”. Gelbentzun 13 etxe daude, nahiz eta erroldan, eta “eguneroko bizitzan” 17 biztanle inguru egon.

Rakelek goitik behera irakurtzen du aldizkaria eta “oso ongi” dagoela uste du, “batez ere jende adinduak kontakten dituen istorio horiek” oso gustuko ditu. Alabak, aldiz, argazkiak ikustea maite duela esan digu: “Amatxo, ea nor ateratzen den ikus dezagun” esan ohi dio. Rakeli galdetu diogu ea nola hobetu genezakeen aldizkaria eta, aitortu du jendeak gehiago parte hartu zezakeela, nahiz eta aitortu aldizkaria egiteak duen “meritua”.

Goizetan, normalean Rakel lotan egoten da gauez lan egiten baitu ezgaitasun psikikoak dituzten emakume helduen egoitza batean, Elkanon. “Beti gauez lan egiten dut, egoitzan, normalean, gauak oso lasaiak dira egunak baino gehiago...”.

Rakelek onartzen du zenbait jende ikaratu egiten dela halako leku batean lan egiten duela esatean, “baina hori ezjakintasuna da, jendea laguntzea politte da, bertan bizi diren emakumeak oso pozik daude gure lanaz”. Goizetan lo egitea lortzen duen galdetuta, Rakelek herri txikitan zaratak ere daudela esan digu, “ez pentsa, eh?”

Grabagailua itzali dugu eta joan aurretik hitz egiten geratu gara, eta oso kontu interesgarria sortu da. Etxean guztiak euskaldunak dira, baina aitararen Baztango euskara hitz egiten dute batzuek eta amaren Basaburukoa bestiek. Zeinen interesgarri den hizkuntzak nahasten diren modua!

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil, Arantxa Puignau eta Iosu Martinez.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO AZAROAREN 3AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



ZOZKETA MUNDIALA

INOIZ BAINO SARI GEHITAGO!

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."


ZATOZ DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitez!

Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmugi@gmail.com"

BERNAT ETXEPARE LIZEO BERRIA LAGUNDU!

IPAR EUSKAL HERRIKO EUSKAL LIZEO BAKARRA DA, 400 IKASLERENDAKO LIZEO OROKOR, TEKNOLOGIKO ETA PROFESIONALA BAIONAN.300.000€ BEHAR DUTE LIZEO BERRIA EKIPATZEKO. ZURE LAGUNTZAREN TRUK SAGARRONDO BAT LANDATUKO DA, ZUHAU-REK LANDATUZ NAHI DUZUN LEKUAN EDO GUK "EUSKARAREN SAGARTZEAN" LANDATUZ. SARTU BETXEPARE.EUS WEBGUNEAN

[illegible]

...TODOS LOS DÍAS

...EN TODOS LOS LUGARES Y ÁMBITOS

...APOYANDO A LAS VIOLENTADAS

...CONTRA QUIENES LAS VIOLENTAN

...EGUNERO

...TOKI ETA ESPARRU GUZTIAN

...ERASOTUAK IZAN DIREN ENAKUMEAK BABESTUZ

...FRASOTZAILLEN AURKA

AZAROVAK 4 NOVEMBRE

19.00 Larraletzarreko bentan
Las mujeres pintamos mucho. Mujeres pintoras a lo largo de la Historia
Mintzaldia, Beatriz Chivite. Conferencia-estudio

AZARQAK 11 NOVEMBRE

18.00 Larraintzaerako bentan
Guzen ereduak apartuz Rompido molde de gisero
Oihazabal ikazteko eta Larraintzaerako eskoletan ikasleen antzerkiak
Otra de teatro del alumnado escuela Oihazabal y de Larraintza.

AZAROK 18 NOVEMBRE

18.10 Laritz – Idazkaritzako aretoan Salin de secretaria berdintasuna maite dugulako. Por amor a la igualdad.

AZAROK 20 NOVEMBRE

17.33 Basaburuko kultur etxean
Dokumentala Nagore Documental
Antolatzailea / Organiza: Basaburuko Giltzape Feminista

Azaroak 25 novembre
Oroimen ekitaldia

17.500
Immunizarea anuală necesară scutirii faţă de
A/H1N1 este alta decât cea necesară faţă de gripa
obişnuită, datorită diferenţei
între a şi b. Pentru că b este alfa
Amantadina / Zingivina
Nu au fost de folos în prevenirea

**Azaroak 25 novembri
Manifestazioa**

**Iruseñen Gaztela Plazatik
Deide la Plaza Castilla**
Kantakondea
Iruseñen, Iruseñen, Iruseñen
Iruseñen, Iruseñen, Iruseñen
Iruseñen
Iruseñen, Iruseñen
Iruseñen, Iruseñen
Iruseñen, Iruseñen

AZARDAK 21 NOVEMBRE

17.30-19.30 Oñazabal eskolan
Autoderechoa feminizatzen, eraso-sekulara identifikazioa. 1. tailerra
Hacia la autoderechoa feminista, identificación de agresiones sexuales. Taller 1.
Antolatzaileak / Organiza: Euzkoako Bilkura Feminista

AZARDAK 23-30 NOVEMBRE

17.30-20.00 Apeztegierrriko garbura, Jauntzaras
Autodefensa taldea taller de autodefensa
tema emateko: 649 042 790 Inscipción
Autotratado / Organiza: Kasaburuko Udala

ABENDUAK 2 DICIEMBRE

17.10 Larraietzarreka hontan
"Sin historia" izeneko erakusketaren bisita gidatua. Arbeltz, egilearen etxea.
Bisita gidatua a través de la exposición "Sin historia", con la autora Arbeltz

AZAROK 28 NOVEMBRE-ABENDUA 23 DICIEMBRE

Larvalintzarreko bentan
Erakusketa-exposizioa
Sin historia
Egilea / Autorea: Arbizu

DOI: 10.1002/2014

Mancomunidad
de Servicios Sociales
zona Ultramar
Ultramar delos
Izarte Zoritzuan
Mankomunitatea

25 Día Internacional para la Eliminación de la Violencia hacia las Mujeres
de Noviembre Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeke Nazioarteko Eguna 25 Azaroa

Día Internacional para la Eliminación de la Violencia hacia las Mujeres

Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeke Nazioarteko Eguna

Zorionak Basaburua!

Zorionak eta eskerrik asko Basaburuko biztanleok, lagunok, senideok, bisitariok, txirrindulariok... hala eman zituen eskerrak Ernaizu Kooperatibako kide den Irantzu Perez aizaroztarrek Madrilen saria jaso ondoren.



MAGRAMA-k (Nekazaritza eta Ingurumen Ministerioa) Ernaizu Kooperatiba saritu zuen landa eremuetako emakumeen egunaren harira, “premio de excelencia a la innovación para mujeres rurales” delakoa. Saria denona dela azpimarratu dute behin eta berriz, eta elkarrekin ospatzeko hautua egin zuten.

Madrilera sariaren bila

Madrilera ere ez ziren bakarrik joan. Mikrobusa hartu eta Ministeriora abiatu ziren Ernaizu Kooperatibako kideak familiarekin batera, eta nola ez, Pulunpeko ordezkaritza ere egon zen haiekin.

Zortzi proiektu ziren sarituak, Valentzia, Asturias, Andaluzia eta beste hainbat lekutako emakumeak. Tartean Basaburuko emakumeak, Gure Ekimen Sozialeko Kooperatiba izanik, Basaburuan lanpostuak eta zerbitzuak sortzeaz gain, gure kultura eta inguruarekiko errespetuan oinarritutako garapenaren sustatzaile izateagatik.

Madrilera iritsi eta landa eremuko usainik eta itxurarik ez. Trajeak, gorbatak eta soineko eleganteak nonahi, Ministerioaren aretoa ederki apainduta, Valentziako “Consellera”, Espainiako Nekazaritza ministra, Europar Batasuneko Nekazaritza komisarioa... Eta tartean, 10-15 lagun Basaburuko kamisetak jantzita.

Sariak eman zituzten azkenik, eta aipamen bereziak ere Ernaizuko kideentzat. Aldarrikapenerako tartea ere egon zen, jakina, “gure kultura eta inguruarekiko errespetuan oinarritutako garapenaren sustatzaile” izanik, euskaraz bizi ahal izateko aldarria eraman zuten soinean, horregatik saria eman bazieten, kontuan ere izan dezaten.

Toledon komisarioarekin

Eguna amaitu baino lehen, batzuk autobusean geratu, eta beste batzuek Toledorako bide hartu zuten. Bertan, hurrengo egunean Europar Batasuneko Nekazaritza Komisarioaren hitzaldia zuten, eta berarekin hitz egiteko aukera.

Eta Orokietan ospakizuna

Basaburuar guztiekin ospatu nahi izan zuten saria, eta askok Madrilera joaterik ez zuten izan asteburuan Orokietako ostatuan ospatu zuten. Ernaizuko kideek aipatu ziguten moduan, “Orokietako ospakizuna polita izan zen, jende asko pilatu zen gurekin bat egin nahian. Ernaizuk jasotako saria Basaburuar guztiona da, bihotzez sortutako proiektua dena, bihotzez ere bereganatu du bailara honek”.

Aurrera begira

Orokietaz ari garela, Ernaizuko kideek albiste bat zabaldu nahi izan dute: “Abuztuan aurrerapauso bat eman dugu. Orokietako ostatua kudeatzeko proiektu ausarta jarri dugu martxan. Asteburuetan otorduak eskaintzeaz gain, abenduaren hasieran, alojamendu xume bat eta “Eskape areto” bat zabalduko ditugu”.

Hau 4-6 lagunendako jolasa da, girotutako gela eta istorio batean sartu eta ordu batez lortu behar da ateratzea, horretarako hainbat dedukzio, asmakizun eta buruhausteri aurre egin behar zaie. Gurea, bertako mitologian girotutako istorioa da.

Gaur egun hirietan holako areto asko zabalitzen ari dira eta publiko guztien artean arrakasta dute, familian edota koadrilan egiteko desafioa baita.

Gure bertsioa landa eskape bat izango da, oso aproposa, eskualdeko landa-etxetara datozenendako jarduera ezin hobea, baita hemengo koadrilendako ere.

Proiektu hauei esker, gaur egun 12 lagunek ditugu Basaburuann gure lanpostuak. Horietako gehienak lanaldi partzialak, lana, aisialdia eta pertsonen zaintza ahalbideratzeari begirako lanpostuak. Honek populazio finkatzen laguntzen du, bai sortutako lanpostuek baita emandako zerbitzuek ere.

Oso kontent gaude sari honek geure proiektua ikusazteari eta Basaburua bezalako landa eremuetarako garapenari inurri lanaz egiten diogun ekarpena ezagutarazten duelako. Hala ere, ez dugu aipatu gabe utzi nahi, horrelako ekimenekin benetan konprometitutako politikak falta direla. Emakume aurpegia duen giza-sare hau, ikusezina bezain ezinbestekoa den landa eremuetako oinarri soziala balioan jarriko duten politika ausartak.

Galeanok esan zuenez: “Jende txiki asko, toki txiki askotan, gauza txikiak egiten, mundua alda dezakete”

Landa eremuko emakumeei omenaldia

Hertsiki lotuta egon da sari hau landa eremuko emakumeen ekimenekin. Ez da erraza landa eremuan emakumeek lana bilatzea, eta are zailago lana sortzea. Eta hori da Ernaizuk egin duena, baina landa eremuko nazioarteko egunean, Basaburuko emakume guztiak omendu zituzten.

Ernaizuko Laurak kontatu digunez, “Larunbatean



ekimen koloretsua ikusi genuen Jauntsaratsen. Basandereok, landa eremuko emakumeen eguna zela eta ekitaldi xarmargarria antolatu zuen. Loreak, haziak, lurra, dantzak, udazken eguzki epela eta emakumeak izan ziren protagonista.

Urteetan txokolatero dendan basaburuarrei zerbitzua ematen aritu diren Joxepita eta Pakita, Danok Bat jubilatutako ordezkaria den Boni, Basaburuko lehenbiziko emakumezko alkateta den Esther, Maider Erkametz dantza taldearen izenean eta Ernaizu s.coop. izan ziren omen-duak... saria, eguzkiloredun zapi morea... ezin ederrago!!

Bertaratutako guztien artean bulboak eta haziak banatu ziren eta hiru pisutan eraikitako lorategi eder batean erein genituen.... pintxoak eta poteak ere nahi adina izan ziren..... gustura eta emeki gozatutako unea!!”

Aurten Errigora gehiago ere!



Errigorago gaitezen lemapean, aurten ere itzuli da Errigora ekimena. Saskiak eskatzeko epea urriaren 23an hasi zen. Eta antolakuntzako kide batek gogoratu digu: “Lau lagunen arteko hizketaldiak a ze arrakasta izan duen”. Bere garaian Bizkaiko lagunartean sortutako ekimena da hau.

Ekimenak arrakasta izan badu ere, trantsizio garaiak bizi dituzte: “noranzkoak eta norabideak eztabaidatzen aritu gara”. Eta eztabaida horren ondoren bi ildo indartu nahi dituzte: lurra eta hizkuntza.

Hizkuntza
Nafarroako eskualde ez-euskaldunean bertako ekoizle eta euskaldunak laguntzea: oso ongi atera da dena, diru mordoa lortu da, eta lagundu diren bertako eragileak ere pozik daude. “Orain beste ataka batean gaude: euskaldundu ditugu haur eta helduak, baina gero non arituko gara euskaraz? kalera atera eta erdaldun giroa aurkitzen dute, gu-

Asiako liztorrak ezin uxatu



Pentsatzen genuen aurten, urtea hasi zen moduan, ez genituela Asiako liztorrik ikusiko; baina tamalez, Ultzaman behinik behin, ikusi dituzte. Lizason lehenik uztaila aldera, kabi txiki batean, eta Eltzaburun irailean, bertze bietan.

Erleek ozta-ozta pasa zuten udaberri hotza: ezin atera ibili ziren tenperatura baxu horiekin nektar eta polen eskaera altua izaten denean, ume asko eta janari gutxi erlauntzaren barnean. Duela bi urte gauza bera gertatu zen, eta Iruñerrian

rean erdal giroa topatzen dugu batzuetan, zer esanik ez haienean...” Pentsatzen ari dira, adibidez, Erriberan antzerki bat eraikitzea. Erronka da nola bermatu euskaldunei euskaraz aritzeko tokiak, eremuak.

Lurra
Ekoizleei dagokienez beste arazo batzuk izan dituzte: “Eskaerari aurre egiteko zailtasunak dituzte, adibidez, zainzuriak lortzeko. Eta ekologikoan lan egiteko oraindik arazo gehiago”. Errigorako antolatzaileek dituzten datuen arabera, gaur egun Nafarroan dagoen produktu ekologikoen eskaintza ez da eskariaren %10era ailegatzen. “Kanpotik erosi behar da gehiena eta hori kezagarria da”, esan digute, “eta Nafarroak lurra badu hori egiteko. Esaten diogu nekazariari, tori diru hau eta egin lau urtetan inbertsioa zure eremua ekologiko bihurtzeko”. Eta, bukatzeko, horrela esan digute: “Euskal Herriak badaki nola egin, Nafarroak badaki nola egin. Guk badakigu. Goazen praktikan jartzera. Herriak herriari lagundu ezean, inork ez gaitu lagunduko”.

liztorraren mehatxua latza zenean, gurean udaberriko tenperatura hotz horiei esker liztorrak ez zuten aukera handirik izan ugaltzeko. Baina ikusten denez liztor hauek bizirik irauteko indar izugarria dute, eta beti bada bakarren bat aurrera ateratzen dena. Liztor kabi batetik 10.000 liztor berri jaiotzen dira urtero.

Neguan, denak hil egingo dira, eta erreginek bakarrik iraungo dute hurrengo udaberrira arte. Kabi bakoitzetik udazkenean 10 erregina atera-tzen dira. 40 miloi urteko historia du erleak, eta beti aurrera atera izan da. Baina oraingoz ez dakigu nola konponduko duten erleek arazo hau. Badakigu, Asiako erleak aurre egiten diola liztorrari. Defentsa metodoak garatu dituzte. Liztorrari banaka eraso beharrean, taldeka erasotzen diote; 100 erle, liztor baten kontra. Lurrera bota-tzen dute, eta 45 graduko beroa sortzen dute hegoei eraginez. Liztorra ito egiten da. Ea gure erleak gai diren liztor hauek uxatzeko.

Eskualdeko emakumeak batzeko ekimena aurrera doa

Hilabete batzuetako burutazioen ondoren, Basaburuko Bilgune Feministakoek proposamen interesgarria plazaratu dute, eskualdeko emakumeekin hausnarketa bat abiatzea: “Bailara hauetako emakumeen sentipen, bizipen eta ideiak jasotzea, jasaten dituzten eraso mota desberdinak identifikatzeko autodefentsa feministan pausu bat harago emateko”.



Horrela kontatzen zigun talde honetako partaide batek irratian. Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna aza-

EHNE-Nafarroa. VI. Kongresua

Urriaren 1ean Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak (EHNE) Nafarroan bere VI. Kongresua egin zuen Berriozarren. “Gure nekazaritza, zuen elikadura?” goiburua ardatz hartuta gizarteari dei egin nahi izan zioten bertako produktuen alde egin dezan eta sektorearen etorkizuna bermadain, ingurumena zainduz eta herrietako garapena mantenduz.



Sindikatuak 1.300 kideren izenean 152 ordezkari zuzendaritzan aldaketa garrantzitsua burutu zuten, erabat berrituz. Imanol Ibero Azkarate mahastizaina izendatu zuten EHNE-Nafarroako lehendakari eta Haritz Migueliz Cunchillos idazkari nagusia.

roaren 25ean antolatzen da, eta “aukera aproposa iruditu zitzaigun gogoeta eta dinamika hau abiarazteko”. Bilguneakoek aspaldidanik zuten buruan halako zerbaitegitea, “emakumeak batzen hasteko”, eta heldu diren asteetan eta hilabeteetan gauzatzea nahi dute.

Etorkizuneko batzarra
Aldizkari honen “Hormara” atalean ikusi dezakezue prestatu diren ekimen guztien zerrenda eta egutegia. Ekimen horietako helburuetako bat “geure artean gehiago ezagutzea” izango da, heldu diren hilabeteetan, “ziurrenik abendu edo urtarrilean” burutuko den batzarrari begira. Oraindik zehazteke dagoen ekimen interesgarri honi buruz informatzen jarraituko dugu.

Biak gazteak oso. Haiekin batera honako ordezkariak osatu dute zuzendaritza: Goizuetako abeltzaina Juan Jose Elizalde, Erdozaingo abeltzain eta zereal laboraria Fermin Gorraiz, Sartagudako nekazaria Alberto Benito, Etxalekuko abeltzaina Martin Aldaregia, Erroko artzaina Eduardo Bidaurreta, Fustiñanako abeltzain eta nekazaria Felix Floristan, Usuneko abeltzaina Fernando Eslava eta Cabanillaseko abeltzaina Javier Martinez. Guztiak gizonak.

Fermin Irigarairi hartu dio erreleboa Imanol Iberok eta kongresu amaieran gogoan zituen sektorea jasaten ari den krisi egoera eta klima aldaketak eta bioaniztasunaren suntsiketarakar ditzakeen ondorioak. Lehendakari berriak TTIParen aurka egiteko beharra adierazi zuen, eta gainontzeko euskal lurraldeekin harremanak sendotzeko. Haren hitzetan: “Hizkuntzak, historiak eta kulturak ez ezik, elikadurak ere herri egiten gaitu.”

GOIZERO-GOIZERO. ENTZUN ESAN ERRAN IRRATIAN

"EGÜNERO" IRRATSAIOA.

GOGORATU. 107.9 FM

Eritzeko xahutegia

Eritzen xahutegia berritzen ari dira egunotan eguraldia lagun dutela. Proiektua aurrera eramaten ari dira lan babestuko langileak Oskozko Joseba Gartzaronen laguntzarekin. Gustura baino gusturago ari direla aitortu digu Josebak, eta Iban Baztan Atezko zinegotzia ere kontent ikusi dugu.



IBAN
Nola izan da prozesua?

Xahutegia gaizki zegoen eta zerbait egin behar zen. Mankomunitateari proposatu genion konpontzea eta proiektua onartu zuen. Lan babestuko langile batzuk etorri dira eta haiekin monitore bat, eta hemen ari dira buru-belarri. Helburu bat xahutegia konpontzea da, baina helburu nagusia da langileei lan hauek egiten irakastea: teilatua berritu dute, harriak garbitu dituzte, ingurua txukundu dute... Mankomunitatean egiten diren gauzak anitzak dira, ez dute bakarrik lan egiten, ikasta-

roak ere egiten dituzte, eta hau bertze osagai bat da, gehigarri inportante bat. Horrela egin dugu aurtan eta espero dugu horrelako proiektuak gehiago zabaltzea heldu diren urteetan.

JOSEBA
Zer moduz ari zarete lanean?

Ba oso pozik egia esan. Gustura eta gainera bagoaz aurrera lanarekin, beraz, oso gustura.

Ze lan duzue?

Erabateko buelta eman behar diogu, teilatutik hasi ginen, teilak aldatu genituen, zurezko estruktura guztia garbituko dugu, paretak luzitu behar di-

tugu eta pixka bat txukundu.

Zenbat egun daramazue?

Duela bi aste hasi ginen, eta lana izanen dugu beste bi asterako edo.

Hilabete bat gutxi gorabehera, eta gainera ikasten. Bai, eta nik haiekin ikasten. Batzuk obretan ibiliak dira, eta batzuetan nik baino gehiago dakite, baina bai, helburuak horiek dira, hau egiteaz gain prozesu guztia ikustea eta erakustea, azkenean pauso asko baitira egin beharrekoak.

Zenbat zarete?

Haiek lau eta nirekin bost.

Azken metrorainoko emozioa Ultzamako Rallyan



Iraizozko pistetan hamarnaka auto itzuli ziren lurgaineko Rallyra. Antolakuntzatik aipatu digutenez, balorazio "positiboa" egin dute, "antolakuntza aldetik oso ongi funtzionatu zuelako eta publikoaren aldetik ere, oso erantzun beroa" egon zelako. Ultzamakoa txapelketaren azkeneko proba izan zen, eta garaipen orokorra azken momentu arte ez zegoen argi. Azkenean Iker Barruetabeña eta Borja Eguinok txapeldun izan ziren. Lasterketaren ibilbidea 6,5 kilometrokoa zen, eta, aipatu digutenez, gidariak benetan gustura egon ziren ibilbidearekin, eta baten batek aipatu omen zuen "urteko lasterketarik hoberena" zela. Beste batzuetan bezala, Eltsoko Miguel Iraizoz partaideen artean egon zen, Ford Focus autoen kategorian eta Goyo Nietoren laguntzaz etapako bigarren postua lortu zuten.

Elkartasun eguna azaroaren 19an ospatuko da

Ekimen hauek berriz ere ez antolatzeke egiten dira, baina halabeharrez, urteak daramatzagu halakoetara joaten. Aurtengoa berriz Jauntsaratsen antolatu dute Basaburuarrek eta beste urteen antzeko programa prestatu dute; urtero bezala, zerbait berria sartuko dute, sorpresaren bat.



Ekimen hauek berriz ere ez antolatzeke egiten dira, baina halabeharrez, urteak daramatzagu halakoetara joaten. Aurtengoa berriz Jauntsaratsen antolatu dute Basaburuarrek eta beste urteen antzeko programa prestatu dute; urtero bezala, zerbait berria sartuko dute, sorpresaren bat.

Goizean pilota partidarekin hasiko dira, Erkametz taldearekin euskal dantzak, geroago bazkaria egingo da, eta bazkalostean Baztango bi neskek kantaldia eskainiko dute. Arratsaldean, ekitaldi

politikoa egonen da eta musikak hartuko du beste behin ere protagonismoa.

Bideo bat grabatu

Iazko ekitaldian Euskal Herriko mapa osatu zuten argiekin, pertsona bakoitzak eskuan bat zuela. Aurtan ere zerbait berezia prestatu dute: bideo bat grabatuko dute azaroaren 25ean bertan. Jendea Herri kirolak egiten: neska-mutilak arpanan, bi dantzari, talde abesti bat eta halakoak. Horretarako profesional baten laguntza izango dute. Espero dugu bukatuta dagoenean ikusten uztea!

Basaburuan osasuna zaintzeko kanpaina aurrera doa

Zaintzaileendako eta autodefentsa ikastaroak antolatu dituzte azaroan



te biopsikosoziala sustatzea bizi-modu osasuntsuak bultzatuz eta osasunarendako kaltegarriak diren jokaeren prebentzioa kolektibo ahulenetan esku hartzeko ekintza komunitarioen bitartez".

gabe dagoela jendeak bere burua zaintzeko kultura. Azaroaren 29an Cristina Urrutiak gaixoa mugitzeko teknikei buruz hitz egingo die bertaratuakoei.

Autodefentsa ikastaroa, Osasun eta Gizarte Politikaren Batzordeak antolatuta, azaroaren 23an eta 29an izanen da, Apeztegi-berriko ganbaran. Emagin taldeko kide batek eskainiko du. Antolatzaileen asmoa da ikastaro hau heldu den urtean ere eskaintzea. Zaintza edo Autodefentsa ikastaro hauetara joaterik ez baduzu, lasai, hurrengo zenbakian jarraipena emango diogu-eta!

Duela hilabete batzuk aipatu genizuen Basaburuan osasuna zaintzeko kanpaina integral bat antolatzen ari zirela : bizikletan kas-

koa eramateko ikastaroak, pasabideen eguna, adinduendako ikastaroak...

Helburuak honakoak dira: "Herritarren ongiza-

Larraintzar ikastetxeko lanak



marka! Ondorioak nabarmenak izan ziren: hezetasuna, hotza... eta azken urte hauetan ere espazio falta nabarmena izan da.

Joan zen urtean sinadura bilketa egin zuten ikastetxean gabezia guzti hauek azaleratzeko, eta Nafarroako Gobernuari eraikin berri baten beharra adierazi zioten.

Martxoaren amaieran Hezkuntza Batzordeak bisitatu zuen ikastetxea, beharra zegoela baieztatu zuen Batzorde honek aho batez, eta, uztail-abuztu aldera lanak hasi ziren. Erran digutenez martxo onean doaz eta, horrela jarraituz gero, urtea amaitu aurretik bukatuta egonen da eraikin berria.

Zintzo demonio ari dira. Nafarroako Gobernuak teknikariek estu jarraitzen dute lana, astero etortzen omen dira jarraipena egitera eta guztia ikuskatzera.

Guztiak konturatuko zinetenez, eraikin berria egiten ari dira betiko ikastetxearen ondoan. Azkenean desagertu dira behin behinekoak ziren eraikinak, eta bazen garaia, hiru urteko bizi-iraupena zena, hogeitaz luza zitzaien. Hau

Onddoaren eguna azaroaren 13an

Aurten ere onddoaren eguna prestatzen ari da Parke Mikologikoko taldea. Aurretik, azaroaren 11n, ikastetxean ikastaro bat eskainiko dute: ikasleak mendira joan dira onddo eta perretxikoen bila aditu batekin, ezagutzen ikasiko dira eta azalpenak jasoko dituzte.



Azaroaren 12an gidatutako bi bisita egonen dira 9:00etatik 13:00era. Txar-

tela dutenendako eta ultzamarrendako dohainik izanen da, eta gainontzekoek bost euro pagatu beharko dituzte. Gero, ordu bata aldera, hitzaldi bat prestatu du Javier Gomez mikologoak Larraintzarko Bentan: "Jateko izateaz gain, zertarako balio dute perretxikoek?"

Azaroaren 13a Onddoaren Eguna bera izanen da. Perretxiko azoka aurreko urteetan bezala Larraintzarko frontoian izanen da erakusketa zabal batekin. Aholkuak jasotzeko parada ere egonen da teknikariaren eskutik goize-

ko 8:30etik 15:00etara. Azokan bertan zenbait postu aurkituko dituzte: Goibeies, Mikobaldorba, Huescatik datorren Bongui zurezko eskulangintza, Ana zurezko tailekin ... eta Micosfera txikien-dako ludoteka.

Bertze urteetan bezala mikogastronomia-ibilbidea eskainiko dute bailarako ostalariek ostiral arratsaldetik, onddo edo perretxikoekin egindako pintxo eta tragoa hiru euroen truke. Hiru pintxo janez gero igandean eginen duten zozketan parte hartzeko zenbakia emanen dizute.



Irudi batean

Euskara eta feminismoa Aizarotzen



Izan al zaitezke feminista euskaltzale izan gabe? Eta euskaltzale feminista izan gabe? galderei erantzuten saiatuko dira Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel beasaindarrek.

Euren ustez, hizkuntza eta generoa, biak dira nortasuna eraikitzeke tresna; eta honenbestez, baita norbanakoa jendartea egituratzen duen botere harremanen sarean kokatzeko elementuak ere.

Antzekotasun horien bila hasi ziren Lorea eta Idurre duela urte pare bat. Bizipen sinpleetatik abiatuta, menderakuntza bikoitza jasan behar izaten dugula argi geratu zitzairen, gure inguruan eraikuntza ideologiko bat egina dagoela gu ezertan pentsatzen hasi aurretik. Ordudanik haiek ikasi eta ikertutakoa jendearekin konpartitu nahian dabilta. Abenduaren 2an, ostirala, hurbilduko zaizkigu Lorea eta Idurre kazetari eta antropologoak Aizarozko Herriko Etxera arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Nafarroako Artxiboak Sarean argitaratu ditu Gerra Zibileko soldaduen fitxak. Eskualdeko jendearen datuak ere bilatu daitezke



Nafarroako Artxiboak Gerra Zibilean altxatutako bandoko soldadu nafarren 40.791 fitxa argitaratu ditu Interneten, eta baita Nafarroako Politika Erantzukizunen Eskualde Epaitegiak Mugimendu Nazionalako aurkarien kontra emandako 1.538 epai ere. Informazio hori Nafarroan epe historiko horren gainean orain arte argitaratutako datu-kopuru handiena da, eta ikertzaileen nahiz herritarren esku daude doan eta era

librean, Foru Gobernuak artxiboen atariko bilatzai-learen bidez (www.archivoabierto.navarra.es). Epaien kontsulta zuzeneko izango da orrialde osoan argitaratu baitira.

Aldiz, zeharkakoa izango da fitxen kasuan deskribapenak dokumentuen irudirik gabe zabaldu izanagatik. Horrek esan nahi du fitxa osoa eskuratu nahi duten interesdunek Nafarroako Artxiboko egoitzara joan beharko dutela (Maiatzak 2 kalea, zenbaki gabea, Iruña) edo ondorengo helbide elektronikoan eskatu ahalko dutela: archivogeneral@navarra.es.

Beste marihuana landaketa handi bat harrapatu du Guardi Zibilak

Lehenengo batean Basaburuan izan bazen ere, oraingoan Imotzen gertatu da. Guardi Zibilak errepi-de kontrol batean hiru persona harrapatu zituen soinean hamarnaka marihuana landare zeramatzatela. Hurbileko abeltzain esplotazio batean beste 250 landare inguru antzeman zituen poliziak. Aipatu bezala, duela hilabete gutxi hurbilean beste plantazio handi bat harrapa-

tu zuten eta orain beste hau. Abeltzaintzak bizi duen krisi larria dela eta landare hori saltzeak duen mozkinen bila al dabil jendea?

Hori hala bada, eta batzuetan legalizazioa hurbilago dagoela ikusita (Espainiako Gobernu berriaren planen barruan ez badago ere), salbatuko al du Mariak abeltzainak?

Berute, berriro hedabideen gezurren erdian

Badago nork esaten duen hedabide handien influentzia garaia pasatzen ari dela. Baliteke hori horrela izatea, baina oraindik geratzen da denbora dezente, ez pentsa!

Hilabete honetan berriro ere ikusi dugu Altsasuko taberna batean gertatutako borrokaren ondoren zelako "ekaitz mediatikoa" sortu zuten. Ez da halako kanpainak sortzen dituzten lehenengo aldia, eta zoritxarrez, gauzak nola dauden ikusita, azkena ere, baina batzuetan sortzen duten zurun-biloa eta zarata hain da handia ze ez da erraza gauzak argi ikusten. Halere, kanpain horretan, bat batean, Berueten otsaila aldera ustez euskal preso ohiei Guardia Zibilak egin-

dako erreskate bat aipatu zuten. Bertan, Altsasun jipoitutako agente bat omen zegoen. "Eta berriro egingo luke" zioten hedabideetan.

Hainbeste manipulazioaren artean, batzuetan, zorionekoa da hurbileko gertakari bat aipatzea gauzak argiago ikusteko. Bere garaian hedabide honetan aipatu genizuen bezala, Beruete "gertakaria" gezur borobila zen, Guardia Zibilak agertu omen zen, zegoen egoera ikusi eta alde! Sagardotegikoen laguntzaz jendea etxeratu ahal izan zen. Hala aipatu ziguten bertan egon ziren testigu guztiak. Askotan gezura badirudi ere, hedabideon lana delako gauzak gertatu ziren bezala kontatzea.

Esnearen mundua gurean: **publizitatetik** errealitatera

Irail hasieran gertatu zen. Halakoetan norbaitek beti ematen du abisua: “Aizu, ikusi al duzu telebistan agertzen direla hemengo abeltzain batzuk esnea iragartzen?” Egun horretan bertan ikusi genuen iragarkiak, “hemengo esnea” eta “hemengo ekoizleei” buruz. Pentsatu genuen interesgarria izanen litzatekeela eskualdean ditugun kooperatiba desberdinekin hitz egitea saltzaile handiekin nola antolatzen diren ikusteko.



Euskaral Telebistako aurkezle ezaguna supermerkatuan dago eta kamerari galdetzen dio: “Esnea oso elikagai garrantzitsua da, baina, zein aukeratu? Hemengoa, gure abeltzainena!” Saltzaile handiek azken urteetan bide berri bat aurkitu dute publizitatean; hurbileko produktuak, ekologikoak, “etxekoa bezalakoa” edota “amonak egin zuen mami berbera” izango balitz bezala saltzea. Guk, kontsumitzaile gisa, badakigu hori gezurra dela, edo behintzat ez dela guztiz egia. Halere, ikusi ditzagun gaur egungo ekoizpen eredu desberdinak eta lan akordio desberdinak protagonisten hitzetan:

Marian, Oskozko Kooperatibako bazkidea:

“EZ DUGU ESNEAREN PREZIOAN INOLAKO KONTROLIK”



“Aspaldi gara Lacturale kooperatibako bazkide. Abeltzain kooperatiba gara eta gaur egun 18-20 esplozazio inguru ditugu”. Lacturalek komertzializatu eta ontziratzen ditu esnea, jogurta, gazta eta halakoak. “Kooperatibak egutegia prestatzen du eta kamioia gurera etortzen da esne bila. Egutegia hilabetekaria da, eta dituzten aurreikuspenekin antolatzen da, edota biltegitratuta duten esne kopuruaren arabera (“stock” hitz ingelese erabili du)”.

Aurreikuspen horiek nola egiten diren galdetuta, Marianek erantzun digu hitz berezi batekin “cisterno”, “mercadeo” hitzaren egokitza. “Azken urteetan ordaindu diren prezioak lotsagarriak izan dira.

Azken hilabeteetan prezioek zer edo zer egin dute gora, guk baditugu zenbait salneurri-akordio, horiek 6-8 hilero aztertzen direnak. Halere, ez dugu esnearen prezioan inolako kontrolik, orain Txinak esne asko nahi omen du edota Errusiako betoa dela eta zerbait hobetu du kontuak... Baina begira ze “aktore” diren horiek...” Bitxikeria aipatu digu, erosleak hartzen duen esnea 4 hilabeteko aurretik atera zela behit.

Telebita piztu eta aibala! Ultzamako abeltzain batzuk pantailan... Zer diote? “Zer esan nahi du esne honetatik denok edaten dugula? Esan nahi du eguneroko bizitzako ekintza txiki bat, esnea edatea...” edota “Horrela ziurtatzen duzu ingurugiroa eta gure sektorea mantendu ahal izatea...” Publizitateaz harago joan nahi dugu eta zuzenean haiekin hitz egin dugu. Gelbentzuko Alfredo Eroskiren telebistako iragarki horietako batean agertzen den abeltzaintakotako bat da. Telefonoz hitz egin dugu berarekin.



Nola izan zen iragarkia egiteko prozesua?

Beraiek (Eroskikoek) mugitzen hasi ziren eta gurekin jarri ziren harremanetan. Gu osotara 11 abeltzain gara eta gutako 2 horretaz arduratzen dira eta beraiek egin zuten negoziazioa, baina tira, “normala” joan zen.

Noiz eta nolako da akordioa?

Iragarkiak atera zirenean argitaratu zen akordioa. Tratua luzerako izatea espero dugu, ez da urte baterako apustua, espero urtetarako izatea... Printzipioz luzerako.



Nolako da eguneroko funtzionamendua?

Haiek eskatzen dute esnea, eta guk ematen diegu. Adibidez, astean bi edo hiru kamioi eskatu eta guk eramaten ditugu eta ontziratzen dugu. Guk eramaten dugu kamioia, guk ontziratzen dugu, eta guk saltzen diegu “tetra-brika”. Kantabria aldean ontziratzen da esnea, guretzako hurbilen dagoen puntua da, Nafarroan ez baitago besterik. Eroskikoek merkatuaren arabera eskatzen dute, esaten den bezala, eskaintza eta eskaria, eta horren arabera guk saldu gehiago edo gutxiago saltzen diegu.

Hedabideetara bidalitako prentsa ohar batean honakoa esan zuten Eroskikoek: “SAIONA kooperatibak akordio bat egin du Nafarroako esnea Eroski markarekin saltzeko, eta, horrela, ekoizpena %100 Nafarroakoa dela bermatzeko. Akordio hori ona da lehen sektoreko abeltzaintzako esnea bultzatzeko, Nafarroako esne abeltzaintzako ustategiak hobetzea eta handitzea lortuko baita”.

Azken asteetan hedabide askotan ikusi ditugu esne kontuak. Lehengoan “El País” egunkaria irakurtzen zera aurkitu genuen: “Esnearen sektoreko hemengo familia frankotan eragina duen esne-hautsaren prezioa munduaren bestaldean erabakitzen da; izan ere, Zelanda Berriak planetako esnekien bi heren ekoizten du, eta hango kooperatiba handiena den Fonterrako enkanteetan neurtzen da nazioarteko merkatuaren pulstua. Azkenik, hiru urtez pattal samar egon ondoren, pulstu hori bizkortzen hasia da.

Zelanda Berrian erabakitzen da... Gure hurrengo protagonista Anueko Aritzun bizi da eta bere izena Eneko Iraizoz da, Kaiku kooperatibako eskualdeko ordezkaria eta abeltzaina. “Lehen Beuntzako Fernando zegoen baina duela hilabete gutxi niri egokitu zitzaidan”. Enekok, batez ere, egunerokotasunari buruz hitz egin digu: “Ola-


gueko kamioilaria bi egunean behin etortzen da esne bila. Kaikuk eramaten du ekoizten dugun esne guztia, ez du inporta batek gehiago ekoizten duen edo besteak gutxiago”. Halere, badaude salbuespenak, “abeltzainen batek zuzenean merkaturatzen du haren esnea, halako makina saltzaile horietan”.



Kooperatibak, normalean, urtean behin edo ezartzen du abeltzainei ordaindu beharreko prezioa, nahiz eta batzuetan aldaketak izan: “Duela gutxi zentimo bat jaitsi zuten, espero dugu hemendik gutxira igotzea, baina ez da ohikoena hori”. Bakoitzak jasotzen duenak ere badu zerikusia, “kalitate taula” batzuk.

Kaikuren publizitatean “Kilometro 0” kontzeptua saltzen da, eta Enekok azaldu digu honako hitzekin: “Eskualdeko 18-20 abeltzain gaude kooperatiba honetan, kamioilaria ere eskualdekoa da, eta ontziratze plantak Iruñean ditugu (bertan esnekiak eta jogurtak ekoizten dira) eta bestea, esnea ontziratzen dena, Urnietan (Gipuzkoa).

Publizitateaz harago, esnea ekoizteko eredu desberdinak ezagutu ditugu. Akordio mota desberdinak, egunerokotasun desberdinak... Behinik behin, guztiek, publizitatean bada ere, azpimarratzen dute hurbiltasuneko kontsumoaren garrantzia.



Sanjurjo Basaburuan

Gerra bukatu eta laurogei urte ondoren, Sanjurjo jenerala, berriz ere puri-purian dago. 1932. urtean Estatu Golpea eman nahi izan zuen Bigarren Errepublikaren kontra, eta huts eginda, lehenik heriotza zigorra eman zioten eta gero barkatu eta bizi guztirako kartzela. Hala ere, laster, 1934. urtean, amnistia eman zioten baina atzerrira joan beharra izan zuen, Portugala. Estoril udaleku famatuan bizitu zen. Jose Sanjurjo Sacanell zen jeneral hau.

1936ko Estatu Golpean ere parte hartu zuen, buru izan beharra zen. Eta gainera, karlisten konfiantzako gizona zen. Baina gerra hasi eta hiru egunetara, Burgosa, gerran parte hartzera etortzeko asmotan, hegazkina aireratzekoan huts egin eta bertan hegazkina kiskali eta hil egin zen.



LEKUNBERRIKO KANPOSANTUAN JUSTOREN HILOBIA.
HONELA JARTZEN DU: D.O.M. Don Justo Sanjurjo y Bonrostro falleció 26 de junio de 1873

Orain, berriz ere, esan dugun bezala, hizpi-dea sortu da bere hezurak Iruñeko "Ero-rien Monumentuko" kriptatik atera eta kanposantura eraman behar dituztela eta.

Dena dela, ez dugu hona ekarri nahi izan Jose Sanjurjo Sacanell zena orain sortu den iskanbilagatik. Aitzakia besterik ez da izan. Beste Sanjurjo bat dakargu hona, bere aita: Justo Sanjurjo Bonrostro, hirugarren gerra karlistan hila gure artean.

1873ko ekainaren 26an izan zen guduka fama-tua Udabe, Beramendi eta Itsaso artean, eta bertan burrukan aritu zirenak Nafarroako karlisten 1º,

2. 3. eta 4. batailoiak eta Azpeitiko alde batetik eta, bestetik, Castañon koronelaren zutabe libe-rala. Karlistak askoz gehiago ziren baina oraindik beratx samarrak, boluntarioak eta gerra kontuetan berriak baitziren. Liberalak, berriz, profesionalak. Hala ere, nahiz hildako gehiago izan karlistetan, guduka irabazi egin zuten.

Gerra honetan ordura artio karlistek irabazi gu-duka inportanteena Udabeko hau. Guduka hone-tatik aurrera gerra izugarri gogortuko zen.

Hilen artean zegoen karlisten zalditeriako korone-la zen Justo Sanjurjo Bonrostro. Bai Sanjurjo eta bai gainerako hilak Lekunberrira eraman zituzten eta bertako kanposantua ehortzi.

Zergatik ez zituzten Udaben ehortzi? Zauritu gehienak ere Lekunberrira eraman zituzten. Alder-di honetako herririk handiena zelakoz? Baliteke hala izatea. Zaurituak ahal zituzten tokietan zain-du zituzten. Zauritu karlista gehienak etxe partiku-larretara eraman zituzten.

Biharamunean hasi zen Gurutze Gorria lanean, zaurituak sendatzen eta batzuk Iruñera eramaten. Kontatzen da nola Teodoro Rada brigadierra ere zauritu zuten eta nola labe batean ezkutatu behar izan zuen.

Teodoro Rada, "Radica" ezizenez ezaguna, oso balientea, ausarta eta maitatua izan zen. Tafallako semetzat dute eta bertan karrika bat ere badu. Karlista tropako buruzagietan maitatuena izan zen. 1874ko martxoko 29an karlistek Bilbo ingura-tu eta setiatua zutenean zauritu eta biharamunean hil zen Radica gizajoa.

Udabetik tropa karlistak Leitzara erretiratu zi-ren. Luze joko zuen gerra hark.

Justo Sanjurjo honek urte bat lehenago izan zuen seme bat, goiti aipatu dugun Jose Sanjurjo Sacanell oso famatua bihurtuko zena. Militar ka-rerra ikasi eta Kubako eta Afrikako gerretan fama-tuko zen. Eta zer esanik ez Errepublika garaian izan zuen portaera dela eta. Etorri ote zaio behin betiko atsedena semeari aita-ri Lekunberriko kanposantuan bezala?



Aritzuko herria bere eliza politarekin.

Aritzun ezkilak joka

Justo Sanjurjoren kontu hori kontatzeko asmoa genuen, azken egun hauetan sortu den iskan-bila dela eta. Eta gauzak nola diren, urriaren 21ean Aritzuko *Beltranera* joan ginen Goio Urda-nitz eta biok, Eusebio Zilbeti Erbiti artzainarekin egotera. *Beltraneko* sukaldeko beroan kontu kon-tari hasi ginen eta hara zer kontatu zigun Euse-biok.

"Bai, Don Epifanio Sancho Muro, Zubietako semea eta urte askoz eta hil artio, hemen apez izan zena eta zerbitzariarekin pasatukoa izan zen polita. Sanjurjada zela eta".

Zer, 1932. urtean, Sanjurjok Errepublikaren kontra emandako golpeaz ari zara?

Bai, hala ari naiz. Gure apeza seminarioan ze-goenean soldadu egitea tokatu zitzaion Afrikako gerran, 1921. urtean edo izanzen zen. Eta, gero urteetara, 1932.ean, Sanjurjok eta beste jeneral batzuk Estatu Golpea eman zutenean eta galdu, horietakoren bat edo gehiago hona etorri ziren isi-lka Frantziara pasatzeko.

Eta zergatik hona?

Afrikako gerran ezagutu eta adiskidetu zirelako. Don Epifanio Frantziako mugatik hurbil zela baze-kiten bai.

Eta zer da gertatu zena?

Ba, Justak, apezaren zerbitzariak, deus jakin ez, eta jende arrotza sumatu zuenean, nonbait ikaratu gaiztaginen batzuk ote zebiltzan eta joan elizara eta ezkilak jo zituen. Jo eta jo, herri guztia ikaratu artio. Orduan jakin zuten jende arrotza zebilela. Apezak inork jakitea nahi ez eta herri guztia jaki-nen gainean jarri zerbitzariak. Ja, ja!

Jende inportantea ote zen?

Bai, bai, bat behintzat buruetako bat. Batek arropa zuriak zituela esaten zuen Justak, ez dakit nik al-mirantea edo zer izanzen zen.

Eta apezak pasatu zituen Frantziara.

Ja, ja, apezak ez. Baziren bai orduan kontraban-dista eta horrelako franko, bidea ongi zekitenak. Anue kontrabandista tokia da, adiskide!



HIZTEGIA
Puri-purian: modan
Atzerria: extranjero
Guduka: batalla

Zutabe: columna
Zalditeria: caballería
Ehortzi: lurperatu
Gaiztagin: malhechor

Les Hirondelles (Enarak) dokumentala

Hala deitzen zituzten mugaz bertze aldera enaren modura udazkeneko joaten ziren ehunka gazte udaberrian itzultzeko. Neska gazte hauek Erronkari, Zaraitzu eta Aragoiko Echo eta Anso herrikoak ziren batez ere, muga igaro eta Zuberoan pasatzen zuten negua lan eta lan espartinak egiten.



Landaren eremuko emakumeen nazioarteko egurenaren harira antolatatu zuen ekitaldi hau Josune Berdintasun teknikariak, eta, aurretik, Jose Antonio Perales Les Hirondelles dokumentalaren gidolari eta zuzendaria aurkeztu zigen. Ibilbide luzea egina du Peralesek, kazetaria eta antropologoa da, egun Unibertsitate Publikoko irakaslea, eta Mugak eta Immigrazio gaitan espezializatuta dago. Azpimarratzekoa da 2004an egin zuen lana: Mugak eta Kontrabandoa mendebaldeko Pirinioetan. Liburu honetan Baztan eta Malerreka-ko gain gure eskualdeko Anue eta Ultzaman egiten zen kontrabandoa aztertzen du.

Ahozko narrazioak duen garrantzia adierazi nahi izan zigen Jose Antonio Peralesek, "historia-liburu batean aurkituko ez ditugun historiak behar ditugu", bere erranetan "kultur erresistentziaren historiak dira, eta ahal den neurrian berreskuratu beharrekoak". Hain zuzen egindako dokumentala andreen arteko istorio bat da, eta, bere iritziz, eskualde hartako mantentze ekonomiko sozial eta kulturalen izan duten garrantzia agerian uzten laguntzen ahal du.

XIX. mendean, beharrak bultzatuta hartu zuten lehendabiziko enarek Pirinioen bertze alderako bidetara, eta hala jarraitu zuten, 1930. urte arte. Hiru egunetako bidaia izaten zen oinez. Peralesen iritziz, "mugaz gaidiko migrazio historiko hori ulertzeko, enaren jatorriko zein helmugako lurraldeetako egoera ulertu beharra dago; XIX. mendean

muga modernoa ezarri zen, eta berez kultura, historia eta ohitura berak zituen lurralde bateko alde batek eta besteak garapen ezberdina izan zuten». Nafarroa eta Aragoiko Pirinioetako eskualdeetan lehengo gizarte eredu mantentzen zen, lurrari eta abeltzaintzari lotua. Zuberoan, aldiz, hasieran artisau lana zena industrializatuz joan zen, eta, Peralesek azaldu zigunez, "garai hartan eskulan falta zegoen bertan, jende asko joan baitzen Argentinara edota Mexikora lanera". Alde bateko miseriak eta bertzeako eskulanaren beharrak migrazioa ekarri zuen. Bitxia izan zen kontatu ziguna: espartinen eskaera goraka joan zen hain zuzen Argentina eta Mexikon zeuden euskaldunak eskatzen zituztelako.

Migrazio hau andreen transformazio prozesu bat bezala ulertu behar dela ere erran zigen Peralesek, eta ikusi bertzerik ez dago haien herrietara itzuli baino pixka bat lehenago egiten zituzten argazkiak: emakume gazte haiek, dotore jantziak, oso ezberdin udazkenean beltzez jantzirik ateratzen ziren gazte haiekin alderatuta.

Hauxe da labor-labor dokumentalaren sinopsia: Ilazkik, Erronkariko "enara" baten birbilobak, bere birramonaren migrazio-abentura berregiten du. Neskaren egoera pertsonalak halako antzekotasun bat dauka bere birramonak bizitako egoerarekin. Youtuben ikus dezakezue dokumentala Les Hirondelles idatziz edo <https://www.youtube.com/watch?v=lu276Y0JEUo>

Trostan

Asmoa Mestako abelbide bat egitea zen, hain zuzen, Ekialdeko Soriar Errege Abeldidea, Soriatik Sevillara doana, zazpiehun eta zortziehun kilometro artekoa. Horixe izan zen Lizasoko Zuluren lankideak Zulu eta Aspiari proposatu zien ibilbidea, transhumantzia bere aitatzik eta aitak artaldeekin urteetan egindako ibilbide bera. Zaldiz egin nahi zuten, eta hauei ere oso proiektu polita iruditu zitzaion. Irailaren zortzian atera ziren Lizasotik Zulu, Aspi eta Carmelo bi zaldi eta bi behorrekin. Zaldi batek karga guztia eraman behar zuten. Honela kontatu digu Aspi.



Lizasotik ateratzen.



Ibaian, atzean Berbinzana.

Aurretik prestatu zineten?

Bai, noski, ez genekien zaldiz ibiltzen. Lehenik Usungo Arbaiun zalditegian hilabete batez egon ginen ikasten, hura izan zen lehen esperientzia, eta hantxe erosi genituen bi behor eta bi zaldi. Gero Ultzamara ekarri genituen, eta hilabete eta erdi haiekin ibili ginen atera aurretik. Gurekin edukitzea oso polita izan zen, asko ibili ginen haiekin gora eta behera, lau eta bost egun astero. Hasieran Soriaraino eraman behar genituen zaldi-behorrak kamioi batean, baina azkenean Lizasotik ateratzea erabaki genuen.

Nola izan zen egunerokoa?

Goizeko seietan altxatzen ginen eta bi ordu ematen genituen zaldi/behorrei gosaria ematen, gu gosaltzen eta gauerako ateratako guztia ongi gordetzen. Egunsentiarekin ateratzen ginen, aipatutako egun horiek kenduta, eguraldi ona izan dugu bidaia osoan. Ogitarteko bat eramaten genuen eguerdirako, pixka bat geratzen ginen jateko, baina zazpi zortzi orduz ibiltzen ginen, bost kilometro orduko gutxi gora behera, hogeita hamar bat kilometro egunero, nahikotxo ere oinez egin genuen, batez ere Zulu, nahi zuelako, baina baita gero zaldiek zeuzkaten zauriengatik.

Paisaia, herriak?

Zirraragarriak, herri batzuk oso interesgarriak, adibidez, Almazan herriak zeuzkan harresiak, plazak, jauregi eta eliza... ikusgarriak iruditu zitzaizkidan benetan. Abeldidea ere ikusgarria da tarte gehiengatik.

Tajo ibaia gurutzatuta, zu eta Zulu bidaia amaitutzat ematea erabaki zenuten. Bai, Madriletik behera, Tajo gurutzatu eta Fuentidueña herrian. Ordurako ibilbide erdia egina genuen. Bi zaldiak zaurituta zeuden

gurutzean, ezin zitzaion karga edo aulkia jarri. Ez zutenez betarik sendatzeko eta kontu pertsonal bat tartean atera zenez, atzera egitea erabaki genuen eta Carmelok aurrera jarraitu zuen Carmonaraino, Sevilla ondoan.

Gogorra izan da?

Gogorra ez, ez da izan gogorra, zorrotza agian bai, goizero ateratzen ginen jakin gabe ura aurkituko ote genuen egun amaieran, antsietate puntu batekin beti. Goizeko seietan esnatu, zaldi-behorrak prestatu, karga ongi orekatu, gosaldia, atera, ibili, nonbaitera iritsi gaua pasatzeko, zaldi-behorren beharrak ase-bete, gureak... arratsaldeko bederatzietan amaitzen genuen neke-neke eginda.

Baina une onak ere izanen zenituzten.

Bai, oso onak gainera. Eguraldi ona izan genuen eta gozamina izan da gauero aire librean lo egitea, normalean herrietako parkeetara joaten ginen, han ura baitzegoen, iturri bat edo beste. Afari ederrak egin ditugu, hiru kanpin gas eraman genituen, eta jendeak eman edo saldu egiten zizkigun barazkiak eta abar prestatzen genituen gureaz gain.

Helburua bete gabe geratu zaizue zuei bioi.

Txirrinta geratu zaigu hasitako amaitzeko eta agian udaberrian joan gara, baina ez zaldiekin bizikletaz baizik. Geratzen zaizu erronka, desafioa ez duzula bete, ikusten duzu prestatua zaudela hori egiteko eta ezin izan duzula amaitu beste arrazoi batengatik. Tira, Carmelok ongi bete zuen helburua. Andaluziako Carmona herrian adineko gizon batek esan zion ongi gogoratzen zuela bere aita, eta elkarrekin konpartitu zituzten oroimenak.

Moztu ezazu ilea!

Marino Goñi erasoarrak lan interesgarria aurkeztuko du heldu diren asteetan Gaztetxoena zaretenok baliteke inoiz ez entzun izana esaldia hau, baina urte batzuk gehiago ditugun mutilok behin eta berriz entzun behar izan dugu. Batzuetan "eta lan on bat bilatu" hitzekin bukatzen zena. Askotan halakoak hippyei edo punkiei esaten zizkieten jende "helduak". "Cortate el pelo" izenpean Imozko Erasoko Marino Goñi Nafarroan 60. hamarkadan izandako Rock and Roll eszenari buruz dokumental bat bukatzen ari da eta diru-laguntza kanpaina bat hasi du horretarako.



Handik eta hemendik galdetu badugu ere, ez dugu rock musikaririk aurkitu eskualde honetan. Ezagutu al duzu garaiko musikariren bat, edo ba al duzu talde horien diskoren bat ganbaran? Erantzun pulunpe@gmail.com

Esan Erran irratian jaso genuen Marino, aspaldi ez genuen berarekin hitz egiten eta pozik egin dugu berarekin euskaraz elkarriketa. Harriduraz entzun genuen bere garaian zeuden talde mordoaren izenak entzunda: "Los Iruñako, Los Totem, Los Junior's, Los Brek's, Orquesta Oasis, Los Huesos, Los Jafans, The Zarras, Desertores S.L, Los Anakos, Los Rebel-des, Los Condes."

Nafarroako gizartea gutxika aldatzen ari zen eta, beti gertatzen den bezala, musika ere aldatu zen. Eta nondik zetorren musika hori? Bada, hasieran, behintzat, irratitik. Eta ez edonolako irratitik, baizik eta Ingalaterratik zetozen uhin piraten bidez. Radio Carolinek itsaso zabaletik emititzen zuen, eta Iruñeraino ailegatzen ziren uhin libreak, gauetan batez ere. Frantziako gertutasunak ere asko lagundu zuen hemen ezin entzun ahal ziren musikez gozatzeko.

60. hamarkadaren hasieran frankismoaren gainbehera hasi zen. Mugimenduek, hasieran motel samarrak, elizaren mugetan ibiltzen zen jendea izan zuten protagonista. Gaur egungo gazteen-dako harrigarria badirudi ere, Iruñeko Maristas edo Dominikasen lokaletan noizbehinka egiten ziren kontzertuak, musika modernoko kontzertuak!




Urte horietan ez zen oraindik Ingalaterrako Beatles taldearen arrakasta mundiala ailegatu eta gaztetxoek Elvis edota Paul Anka zuten eredu. Liverpoolgo taldearen arrakasta ailegatu zen eta taldeen estiloa ere gutxika aldatzen hasi zen. Ereduak aldatu ziren, eta Rolling Stones eta Beatles taldeak ziren arrakastatsuenak. Hala ere, hamarkadaren bukaerarekin batera, musika berriz aldatu, eta Hippie mugimendua ailegatu zen, musika psikodelikoa eta hemengo talde horiek eboluzionatu zuten orkestraren formatua bilatuz.

Laguntza kanpaina

Azken urteetan aldaketa handiak egon dira kulturaren munduan eta, horrekin batera, kultur produktuak ekoizteko modua goitik behera aldatu da. Horren adibide handietako bat "crowdfunding" deitutakoa da: jendeak diruz laguntzen du, kasu honetan bezala, dokumentala egin ahal izateko. Internet bidez egiten dira laguntzak Verkami webgunean "Cortate el pelo" idazten baduzu.

Halako lana egiteko, ia bi urtetako lana dago atzean, eta lantalde baten laguntza ere. Marinok aipatu digu espero duela abendurako, Durangoko Azokarako prest egotea dokumentala. Ea gurean ere aurkezten duen!

Gureak dira oihanak (5): LANDAKETAK



Orokietako harizti gaztea. Orokietako haritz hoberen ezkurak bildu, Iruñera igorri eta handik, Madril-en barna, hegazkinez Holandara. Bertan hango laboratorietan tratatu eta atzera bide beretik hona. Bide luzea egin zuten ezkur haiek, baina emaitza ona da. Holandara joan-etorrian ibili gabe ez daiteke Espainian egin egitekoa? Harrigarria da.

Orokietaren Erbitin pagoa dute gehiena. Hala ere badituzte han eta hemen landatutakoak ere, pinua, haritz amerikanoa, lizarra... Horietaz galdetu genion bertako alkate izandakoari.

Santiago, eta zer diok landatutako arboladiez?

Bai, baina gutxi diagu. Hor karretera jeneraleko bi-degurutzean diagu haritza. Pinua kendu, lurra landu eta erein egin genian, haritza. Orain heldu duk izugarri ongi; haritz politak.

Bai, bai, ezagutzen diat, joan den urtean fotografiak ateratzen ibili nuke. Baina toki gehiagotan ere baduzue.

Bai, haritz amerikanoa errepidearen ondo-ondoan, lehengokoek landatua. Orain bi-hiru urte atera genian gehiena.

Eta pinua ere baduzue.

Bai, baina asko ez, Aizarbilen eta Ubaranen.

Bai, arbola aldetzeak ere egin dira gure herrietan, Orokietan bezala. Batzuetan arbola horiek ongi etorri dira, beste batzuetan oso gaizki.

Batez ere gerra ondoren etorri ziren arbola landatzeak. Adibidez, haritz amerikarra. Garai hartan landatutakoak motzak eta adartzuak atera ziren, hazi txarra ekarri omen zuten. Pinuak ere etorri ziren, larazio motakoa gehienbat. Eta berekin pinu beldarra.

Haritz amerikar horrek ez zuen emaitza onik eman. Eta geroztik ere frakaso gehiegi ikusi dugu, han eta hemen, haritzak, intxaur landareak, lizarrak...ia-ia ez dut landaketa onik ikusi.

Orain berriki irakurtzen nuen nola Nafarroako ibar

handi batean Japoniatik ekarritako arbola motak landatu behar dituzten. Esperimentatu nahi dute, ea emaitza onik ekartzen duten. Eta esperimentuak gaseosarekin egin behar dela da esaldia. Ikusitakoak ikusi ondoren, esan nuke nik ere esperimentuak gaseosarekin egin behar direla. Zoritxarrez, kanpotik ekarritako espeziekin, gehiegitan frakasoak eta gaitzak, hori da ikusi duguna orain artio.

Berez dator oihana

Bere burua ekologistatzat duen alkateren bat edo beste, arbola landatzeari lotu zaio. Arbola landatzea ekologista izatea omen. Gauza itsusiak ikusi ditugu, oso itsusiak. Dirudienek, ez dira ohartu edo ez diete erakutsi gure historia ez hain zaharra. Arbolen kolonizazioaz ari naiz.


Joan den 70 urtean oihana zabaldu eta hedatu da herri hauetan. Arbola jabetzen ari da toki guztietan. Pagadiak bereak ez diren lurak ere menderatu ditu. Izugarri hedatu da pagoa. Egutera lurrak, haritzarentzat hobeak zirenak bereganatu ditu. Larreak bukatzen ari dira, irelarrak suntsitu dira eta hutsik behar liratekeen lurak zenbait herri arbolez josi ditu. Hatsu hartzeko ere beharko dugu bada toki, ez da hala?

Arbola bai, baina dibertsitatea ere bai. Arboladiez aparte, larre, irelarre eta sasia ere beharko dugu ba! Arbola nonahi landatzea ez da ekologista izatea. *Ekologistis miserere* gaitza zabaldua dugu aspaldian gure artean.

HIZTEGIA

BELDARRA. Harra.
EMAITZA: Resultado

EGUTERA: Solano
IRELARREA: Helechal



Erriberako familia euskalduna

Badaiteke eta badezakegu hori da behin edo beste hemen, sail honetan, ateratzen dugun kontua. Gaurkoan etxalekuar baten kasua ekarri dugu, eredugarria baita. Etxalekuko pestetan egon gara Marimigeleneko Mariano Astitz Landiribar eta bere familia guziarekin. Senar-emazteekin hitz egin dugu. Baita umeetan zaharrena den Eguzkiñerekin ere. Euskaraz ia-ia gure erara ari dira umeak. Batuan ongi, Tudelako ikastolan eskolatu baitzituzten, baina harrigarriena da nola ikasi duten euskara, hemengo erara, hemengo azentua, euskal azentua. Bitartekoak norbaitek jarri ditu.



Familia osoa Etxalekuko pestetan. 2016a

Mariano herri euskaldun peto-peto batetik joan Erriberara lanera, Cortesa, andre erdalduna hartu eta familia, Erriberako azken muturrean, euskaraz hazi.

Mariano, ziatik eakutsi diotek euskias?

Nik euskias ikasi nin, erdias e'nakiken bost urtiak artio. Eta pentsatu nin neekin e'tzela akatuko euskia. Eta hori nin burun. Eta hala...

Marianok ez du arrazoi gehiago beharrik izan edo agian ez du uste gehiagoko azalpenik merezi duenik, nahiko inportantea baita: "Neekin ez'ta euskia galduko"

Eta Eguzkiñe alaba zaharrenak, abokatuak, hala esan digu euskara nola ikasi duen galdetu diogunean: "Nik uste dut bai amak eta bai aitak, eginahalak egin dituztela. Nolanahi gisa, aitak guri beti euskaraz egiten zигun, erdaraz ez digu inoiz egin. Erdaraz egiten genioenean, ez zuen erantzuten, ez zuen kasurik egiten. Horrela ikasi dugu. Gero, amarena ere ez da gutxietsi behar, egunero autoa har eta ikastolara eramaten gintuen, Tudelara, 26 kilometrotara. Egunero egunero, lan handia da gero hori, e!"

Eguzkiñe, harro zaude euskara jakiteaz?

Bai, lehendabizi, gure aitaren hizkuntza delako eta Etxalekuko gure aiton-amonena, gure osaba-ize-

benak... gurea, hitz batez. Eta ondasun hori galtzea pena handia litzateke. Bai bai, pozik jakiteaz. Kontent, kontent!

Marianon emazteak, Ana Carmenek, lau anai-arreben amak, ikusteko handia du izan du inoiz entzungabeko hizkuntzaren transmisioa ematen.. Eta berari galdetu diogu:

Ana Carmen, ¿Cómo se lleva el no saber nada de euskara y que el padre hable siempre en euskara con vuestros hijos? Eso también tiene su secreto y su gran mérito.

Se lleva bastante bien, pues conmigo hablan castellano y a mi ya no me engañan los euskaldunes, je, je, je! No sé hablar pero ya no me engañan.

Y yo entiendo o me ha parecido siempre así, que si un padre (o madre) sabe un idioma, no transmitirles a los hijos es un pecado mortal. Y mi marido ha sabido hacerlo muy muy bien.

Arrazoi bikaina erriberar honena, nafartar batek inoiz atzendu behar ez lukeena: Si un padre o madre no trasmite su idioma...

Kondizio (baldintza) hobeak bizi ditugu Basaburua aldean, eta hala ere, nago, zenbait gurasok bide okerretik dabilta. Euskararen eta euskaldunon etorkizunak ez ote dituen kezkatzen pentsatzen dut askotan. Zuk ere pentsatuko bazenu, "euskia ez da neekin galduko", beste kuku batek joko luke alderdi honetan.

Yurta bat eraiki dute Arraratsen

Mongoliako eraikin tipiko hau artilea lantzeko museo gisa erabiliko dute Adri eta Alaine

Asiako kontinente urrunean, Mongoliako estepa erraldoietan bizi ziren eta bizi dira mongoliarrak. Bizimodu nomada izan dute historikoki eta, azken urteetan, halako kulturekin askotan gertatzen den bezala, sedentarioak bihurtzen ari dira. Haien etxebizitza-denda tipikoak "Yurta" du izena, eta gurean lehenengo aldiz eraiki dute Arraratsera berriki etorritako Adri eta Alaine.

Basaburuan, Arraratsera igotzen bazara, herriaren goialdean, eskuinetara sartu eta etxe baten atzean plater itxurako denda antzeko bat aurkituko duzu. Adri eta Alain duela gutxi etorri dira Altsasu aldetik eta herrian bizi eta lan egin nahi dute. Artilearekin arropak egin eta saldu nahi dituzte artisau azoketan. Yurtan beraian lanak ikusgai egongo dira. Artilea aspaldi lantzen zen modua ikasteko Britainia aldera joan ziren.

Eraikina estaltzen duen manta antzeko hori han egin zuten 12 eguneko lanean; baina, beste hurrengoren bat egin behar badute, haien ideia da hemendik aurrera haiek egitea: "Guk geuk egin nahi dugu hurrengoa, Britainiako irakasleari eraman genion hemengo artilea eta baiezatu zigun latxa ardiaren artilea eta Korsikakoaren artilea igualak direla eta egin litekeela hemengoarekin".

Yurtaren barrualdea ikusgarria da: barrukoa ere artilez estalita dago, "baina hau Extremadurako Merino motako ardiarena da".

Artilea lantzeko badute aspaldiko goru bat: "Modeloak 200 bat urte ditu, eta Asturiasko emakume batekin praktikak egiten aritu ginen. Ingalaterran halako tramankulu asko geratzen dira; mekanismoa ikasteko erraza badirudi ere, ez da erraza moneiatzen".

Lehengaiak lortzeko ez dute arazo handirik: "Dagoeneko herriko eta bailarako zenbait abeltzainek ematen digute haien artilea, askok ez dute ezertarako behar eta botatzen dute".



Bost edo borts, Zozketan trost

ZOKKETA MUNDIALA hemen dugu bosgarren aldiz. Honezkero bost sari banatu dugu! Aurrera begira, hamaika banatzekotan gara. Eta eginez eta ekinez, eta zozketa honi esker, Pulunpe urtez urte hobetzen ahalegindu gara. Aurrera, aitzina segituko dugu.

Inoiz baino sari gehiago

Eta urtero sari gehiago banatzen ahalegindu bagara, aurten zer esanik ez. Bost numero magikoa dugu, eta magia banatuko dugu.

Aurten borts axuri gehiago.

Eta gazta gehiago, bazkaritan gora, saski hobeak, eskulangileek emandako sari gehiago...

Hemengo produktuak, hemengo ostatuak, hemengo laguntzaileak. Hemengo Zozketa, hemengo aldizkaria, hemengo irratia, hemengo hizkuntza...

Zuk ere har parte ekintza bizi, eder eta eskuzabal honetan. Zure laguntzarekin aitzina egiten dugu.

Eskulangileak protagonista

Artisauak edo eskulangileak ditugu aurten protagonistak. Orain artio bi edo hiru eskulangilek eskaini izan dizkigute beren lanak Zozketa Mundialean zozketatzeko. Aurten zazpi izanen ditugu. Zazpi ongile, eta bederatzi sari. Honetan ere Zozketa anitz aberastu dugu. Mila esker denoi.

Hona hemen protagonisten saila:

MARCELO BELOKI, ETXALEKUKOA
ANGEL BEUNTZA, GERENDIANGO
JOXE ETXARRI, BERUETEKOA
JUAN MARI GASKUE, GARTZARONGO
XABI ITURRIOTZ, ERASOKOA
FRANCISCO ORBEGOZO, ELTSOKOA
ANA URTEAGA, IRAIZOZKOA.



Angel



Martxelo



Ana



Juan Mari



Xabi

LAGUN IEZAGUZU

TXARTELEN BATZUK SALDU NAHI BADITUZU, BADITUGU 20, 50 ETA 100 TXARTEL DITUZTEN TAKOAK. SARI PILA, SARI BIKAINAK...TXARTELAK SALTZEA EZ ZAIZU ZAIL EGINEN.
HORRETARAKO IDATZI pulunpe@gmail.com HELBIDE ELEKTRONIKORA.
ALDEZ AURRETIK ESKER MILA.

FERNANDO ARRIAZU, AROSTEGIKO ITURGIN BERRIA

“Hemen egiten diren **erlazioak** oso hurbilak dira”

Etxean jaso gaitu Fernandok. Familia osoa kanpoan zegoen eta lasai-lasai egon gara sofán hitz egiten. 16 urte dira jada Arostegiko etxe berrietako bat erosi zutenetik: “Hemen oso gustura gaude, ez ginateke orain inolaz ere hirira itzuliko”. Fabriketan lanean ibiltzeaz nekatuta, iturgin ikasketak egin eta orain bere negozio propioa ireki du. Lana eta bizitzari buruz hitz egin dugu berarekin.

Iruñeko Sanduzelai auzokoa da Fernando, eta Ateza etorri aurretik Barañainen ere bizi izan ziren Fernando eta Marisol senar-emazteak. Orain familia osatu dute Unai, Uxue eta June seme-alabekin. Herrian “zoriontsu” daudela dio Fernandok: “Argi dago herri batean zerbitzu gutxiago ditugula biztanleok, baina hemen egiten diren erlazioak oso hurbilak dira, eta inguruneak markatzen du desberdintasun handiena hiriarekin alderatuta”.

Lan bizitza osoa zeraman Fernandok fabriketan mantentze-lanak egiten baina, 27 urteren ondoren nekaturik beste irtenbide bat bilatu zuen. Iturgintza ikasketak egin zituen Eraikuntza Lan Zentroan Iruñean: “Oso ikastaro interesgarria izan zen, 560 ordu osotara izan ziren, gogoz lan egin genuen eta asko ikasi ere, oso praktikoa izan zen dena eta esango nuke oso ongi prestatuta ateratzen dela jendea. Benetan oso gomen-dagarria izan zen”.

Lana aurrera ateratzen doala esan digu, “ogibide honetan, beste gehienetan bezala, denetarik dago; baina, hori bai, langile onak direnei lana ez zaie falta”. Eraikuntza sektorearen gainbeheraren ondoren lana aldatu dela onartzen du, “baina jendea oraindik ahoz aho gomendatzen gaitu”. Iturgintza lanak “betidanik” izan ditu gustuko eta hasieran beste profesionalei laguntzen aritu bazen ere, “orain nire kaxara jarri naiz”.


Etxean bakarrik zegoenez, ezin izan ditugu fami-liako beste kideak ezagutu, baina aipatu digu beste gauzen artean, oso kirolariak atera zaizkiela seme-alabak. Fernando ere betidanik oso “squash” zalea izan da, urte luze darama jolasten kirol honetara, eta Donibaneko igerilekuetara joaten dira askotan; aita frontoira eta seme-alabak igerilekura, “oso igerilari finak dira eta txapelketetan parte hartzen hasi dira jada”. Zorte on Fernando abentura berri honetan!




ZORIONAK ZUEI!



MIKAELA



Olatz



Josu



PATXI IETA MIKEL



Martiko



ILARGI




AMAIUR



INTZA



IORITZ



ELENA

Negua hasten denean **natura** lo antza geratzen da

Poliki-poliki gauak luzatu dira, hostoak erortzen hasiko dira eta giroa gero eta hotzagoa izanen dugu. Negua dator. Gu sua pizten hasiko gara eta arropa lodiagoa erabiliko dugu. Ordurako biltzen ahal genuen guztia bilduta edukiko dugu, eta lurra esnatu arte itxoin beharko dugu.



Poliki-poliki gauak luzatu dira, hostoak erortzen hasiko dira eta giroa gero eta hotzagoa izanen dugu. Negua dator. Gu sua pizten hasiko gara eta arropa lodiagoa erabiliko dugu. Ordurako biltzen ahal genuen guztia bilduta edukiko dugu, eta lurra esnatu arte itxoin beharko dugu.

Negua hasten denean natura lo antza geratzen da. Garai honetan zailago bihurtzen da elikagaiak lortzea. Animalia batzuek ospa egiten dute leku epelagoetara errazago izanen baitute haietan elikagaiak lortzea, baina bertze batzuek gurean geratzen dira.

Baldintza txar hauetan zenbait animaliak estrategia desberdinak garatu dituzte haien ehunak izoztu ez daitezen. Horietako estrategia bat hibernazioa da. Erabat geldirik, organismoak minimora gutxitzen du bere gorputzeko tenperatura eta metabolismoa oro har (bihotzaren taupadak, arnasketa ...), energia aurrezteko.

Hori gertatu aurretik, hibernatuko duten animalia batzuek ohi baino askoz gehiago jaten dute, loditzen dira eta erreserbak pilatzen dituzte gantz modura. Errate baterako muxarrak bere pisua bikoizten du hibernatu aurretik. Bertze batzuek biltegitxo bat izaten dute hurbil, une batez esnatu, pixka bat jan eta berehala lo geratzen dira berriz. Arretaz prestatzen dute haien babeslekua hosto, belar eta antzekoekin. Gertuko adibideak ditugu: trikuak, muxarrak edota saguzarrak.

Gurekin geratzen diren txori eta hegaztiekin ez dute hibernatzen.

Hibernazioa odol beroa duten animalien artean gertatzen da, baina odol hotza dutenek antzeko zer-bait bizitzen dute: apoak, igelak eta bertze anfibioak, narrastiak sugedorria eta bertze zenbait suge, dorka eta muskerrak ... kanpoko tenperatura asko jaisten denean eta gorputzaren beroa galtzen dutenean, erabat geldirik eta lozorroan geratzen dira haien babeslekuan. Intsektu askori, katalingorriari adibidez, gauza bera gertatzen zaie.

Erleek, jakina denez, multzo lasai bat osatzen dute, baina 14 gradutik behera neguko multzoa osatzen hasten dira multzoa trinkotuz. Barneko erleek beroa sortzen dute (25-35 gradu) eta azalean daudenek geruza isolatzaile bat egiten dute. Zazpi gradutik gora multzoa zabaltzen da eta zazpi gradutik behera biltzen da.

Hibernatzen ez dutenek edota lozorroan geratzen ez direnek ahal dutena egin beharko dute, jakinik elikagaiak murriztuko zaizkiela, gehienak orain jan eta jan ari dira, fruituak batez ere, eta honela ehun adiposo bat lortuko dute, batetik elikadura-erreserba gisa eta bertzetik isolatzaile termikoa moduan.

Ilea ere aldatuko dute. Haien ilearen azpitik bertze geruza bilotsu bat hazten zaie aire epela gordeko duena, epidermisa kanpoko tenperaturatik isolatze-ko. Gero, udaberria iristerakoan galduko dute ilearen berritze naturalarekin.



2016eko iraila

Gure alderdian izan ziren jaiotzak eta heriotzak

Jaiotzak:

IMOTZ
ETXALEKU
Ametz Arada Elizalde, Hodei eta Maite-
ren semea, 2016ko irailaren 19an jaioa,
Ereintz etxean.

ULTZAMA
ELTZABURU
Xabier Tornaria Mutuberria, Jesus eta
Ana Mariaren semea, 2016ko irailaren
15ean jaioa.

**Ongi etorri jaio berriei eta zorio-
nak beren gurasoei!**


Heriotzak

ULTZAMA
ARRAITZ
Juan Larraintzar Erbiti, 2016ko irailaren
17an hil zen. Albiereneko nagusia.

Gure oroimenean izanen zara.



Ametz eta familia



Juan Larraintzar

IRAGARKIAK

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz
Taller mugikorra
Pneumatikoen aldaketa
Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A
Aizarotz (Basaburua)

info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
pneumatikoak konpontzera
-Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
-Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Entzun Esan Erran irratia munduko edozein lekutan

www.ametza.eus
helbidean



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835

Lizaso

karikolaregoitz@gmail.com



BIDALI ZURE
ALBISTEAK, ARGAZKIAK,
TXUTXU-MUTXUAK, JAIOTZAK...
pulunpe@gmail.com
HELBIDERA

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberitzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ



Zozketa mundiala 2016

Sarien zerrenda
Lista de premios

10

ZERRI GIZEN
CERDOS GORDOS

10

AXURI
CORDEROS

28 bazkari/comidas (inguru honetako ostatuean/en restaurantes de la zona)

24 gazta/quesos (Hemengo gaztagileak/productores de la zona)

30 saskitto

Beste anitz sari

Bertako PRODUKTUAK
Bertako EKOIZLEAK

www.ametza.eus